

**EAEko Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako ordezkariak
patronalei eta ikastetxeei galdegin diete greba
amaierako akordioa betetzea eta hitzarmenean
txertatzea**

**Elkarretaratzea egin dute gaur Zornotzako El Carmelo ikastetxean Kristau Eskola
patronal nagusiak antolatutako ikasturte
berriaren hasierako ekitaldian**

14 greba egun eta mobilizazioen ondorioz, Greba Amaierako Akordioa (GAA) sinatu zuten Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako mahai negoziatzailean ordezkaritza daukaten patronalek eta sindikatu guztiek. 2024ko Otsailaren 5ean izan zen. Akordioa indarrean dago eta langileek akordioa bete dute. Horrela, greba bertan behera utzi zuten sinatu zen egunetik.

Akordioa sinatu eta 19 hilabetera, patronalek eta ikastetxeek ez dute akordioa bete. Sindikatuen ekimenez 16 bilera egin diren arren, Greba Amaierako Akordioan sinatutakoa berriro negoziatzeko saiakeran dabilta patronalak, eta oztupoak jartzen ari dira bertako edukiak adostutako baldintzetan hitzarmenean txertatzeko. Patronalak fede txarrez jokatzeko ari dira, GAAn sinatutako hainbat alderdi behin eta berriz urratzen baitituzte.

Eduki batzuk, ez dira bete, hala nola, soldaten kasuan: 2025eko urtariletik aurrera ez diete % 16ko soldata-igoerari eutsi DBH, Batxilergoa eta LanHez-ko langileei, nahiz eta akordioak horrela behartzen dituen eta, % 15,43ra murriztu diete. Ikastetxe gehienetan ez dira aplikatzen ari GAAn adostutako ordu leko eskola-ordu murrizketa, ikastetxe askotan lanpostuak sortzea eta beste batzuetan kaleratzeak saihestea ekarriko lukeena. Eta ez da finantzazio arazo bat hori aplikatzen ari diren ikastetxeak daudenean, borondate faltaren arazoa da.

Hori horrela, STEILAS, CCOO, LAB eta EGT sindikatuak bide judizialari ekin diote jada. Gatazka kolektiboko auzi bat aurkeztu dute EAEko Justizia Auzitegi Nagusian, GAA betetzeko eta etapa guztietan eskola-ordu bat murrizteko eta lan pertsonalerako ordu osagarri bat gehitzeko eskatzeko.

Sindikatuak akordioaren eduki bakoitza aplikatzeko eta betetzeko beharrezkoak diren tresnak aktibatuko dituzte, bai bide judiziala, bai GAA gauzatzeko bidezko mobilizazioak.

Gaur bertan, ehun ordezkari inguruko elkarretaratzea egin dute Zornotzako El Carmelo ikastetxean sektoreko patronal nagusia den Kristau Eskolak antolatutako ikasturte berriaren hasierako ekitaldian. Bertan, patronalei eskatu diete Greba Amaierako Akordioa adostutako baldintzetan betetzeko eta hitzarmenean txertatzeko.

2025eko irailaren 30ean



Representantes de los centros de Iniciativa Social de la CAV exigen a patronales y escuelas que cumplan el acuerdo de fin de huelga y que lo incorporen al convenio

Concentración hoy en la escuela El Carmelo de Amorebieta en el acto de inicio del nuevo curso organizado por la principal patronal del sector, Kristau Eskola

Tras 14 jornadas de huelga y movilizaciones, las patronales y todos los sindicatos con representación en la mesa negociadora de los centros de Iniciativa Social firmaron el Acuerdo de Fin de Huelga (AFH). Fue el 5 de febrero de 2024. El acuerdo está vigente y los y las trabajadoras han cumplido el acuerdo. Así, la huelga fue desconvocada desde el día de su firma.

19 meses después de la firma de dicho acuerdo, patronales y colegios lo están incumplido. A pesar de que se han celebrado 16 reuniones a iniciativa de los sindicatos, las patronales están intentando renegociar lo firmado en el Acuerdo Fin de Huelga y están poniendo trabas a que sus contenidos se integren en el convenio en los términos acordados. La patronales están actuando de mala fe ya que incumplen reiteradamente diferentes aspectos firmados en el AFH.

Hay contenidos que no se están cumpliendo, como en el caso de los salarios: a partir de enero de 2025 no han mantenido el incremento salarial del 16% a los y las trabajadoras de ESO, Bachillerato y FP pese a que el acuerdo así les obliga, y nos lo han reducido al 15,43%. En la mayoría de los colegios no están aplicando la reducción lectiva de 1h acordada en el AFH y que supondría generación de puestos de trabajo en muchos centros, y evitar despidos en otros. Y no es un problema de financiación cuando hay centros que lo están aplicando, es un problema de falta de voluntad.

Así, los sindicatos STEILAS, CCOO, LAB y UGT han iniciado ya la vía judicial. Han presentado una demanda de conflicto colectivo ante el TSJPV para reclamar que cumplan el AFH y reduzcan 1h lectiva en todas las etapas y que aumenten una hora complementaria para trabajo personal.

Los sindicatos activarán los instrumentos necesarios para la aplicación y cumplimiento de cada uno de los contenidos del acuerdo, tanto la vía judicial, como las movilizaciones pertinentes para la ejecución del AFH.

Hoy mismo, cerca de un centenar de delegados y delegadas se han concentrado en el colegio El Carmelo en el acto de apertura del nuevo curso escolar organizado por Kristau Eskola, la principal patronal del sector. Han instado a las patronales a cumplir el acuerdo de fin de huelga en los términos acordados y a incorporarlo al convenio.

30 de septiembre de 2025

